

KIROL BEGIRALEEN LAN-POLTSA

1.- Deialdiaren xedea:

Hernaniko udalak eta Hernaniko ikastetxeek antolatzen dituen ESKOLA-KIROLERAKO begiraleak kontratatzeko lan-poltsa osatzea lehiaketa ireki bidez.

2.- Bete beharreko baldintzak:

Onartua izateko eta lehiaketan parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Lan-kontratua sinatu behar dutenerako 16 urteak beteta izatea, edo urte horretan betetzea.
- b) DBHa bukatua izatea.
- c) Postuan bete behar diren funtzioak betetzea galaraziko lukeen gaixotasunik ez edukitzea. Beharrezkoa izanez gero mediku-txostena eskatuko da.
- d) Euskara jakitea: Mintzatzeko trebetasuna izatea. (Beharrezkoa ikusiz gero, azterketa egingo zaio izangaiari trebetasun hau frogatzeko).
- e) Hernaniarrek lehentasuna izango dute.

3.- Eskabideak eta dokumentazioa:

- **Cv-a** ekhernani@gmail.com helbidera bidali, dagokion erakundeak sinatutako ziurtagiriak atxikituz.
- **Epea:** azken eguna 2023ko irailak 26a izango da.

4.- Hautaketa:

Lehiaketa bidez arautuko da hautaketa eta honako meritua hauek baloratuko dira:

1. Kirol titulazioak (gehienez 11 puntu):
 - a. H. Fisikoko magisteritza (10 puntu)
 - b. SHEE-IVEF (9 puntu)
 - c. TAFYD (8 puntu)
 - d. Aurreko ikasketaren bat burutzen egotea (3 puntu)
2. Heziketa titulazioak (gehienez 7 puntu):
 - a. Heziketa Fisikoko espezialitatea EZ diren magisteritzako edo Pedagogiako ikasketak (7 puntu)
 - b. Heziketarekin erlazionaturiko goi mailako moduluak (5 puntu)
 - c. Ikasketak burutzen ari direnak (2 puntu)
3. Bestelako ikasketak (4 puntu)
 - a. Eskola Kiroleko Monitoreak ikastaroa (3 puntu)
 - b. Beste formakuntza saio batzuk (aisialdiko begirale ikastaroak) (3 puntu)
 - c. Burutzen egotea (puntu 1)
4. Euskara (gehienez 4 puntu).
 - a. EGA, administrazioko 3. hizkuntza eskakizuna, HABE 3.maila, irakaskuntzako 2. hizkuntza eskakizuna (4 puntu)
5. Esperientzia (gehienez 5 puntu)
 - a. Eskola kiroleko begiralea (urte bakoitzeko puntu 1)
 - b. 8-12 urteko kirol entrenatzailea (urte bakoitzeko puntu 1)